

upna

Universidad Pública de Navarra
Nafarroako Unibertsitate Publikoa

Unibertsitate Masterra Bigarren Hezkuntzako Irakasletzan

Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea

Master Bukaerako Lana

**Egitura bihurkarien interferentzia eta
transferentzia
Iruñeko ikasleen jardunean**

Eneko Garcia Uriz
eneko.garcia@unavarra.es

Zuzendaria: Iker Salaberri Izko

Iruñean, 2019ko maiatzaren 27an

Ikaslea

Eneko GARCÍA URIZ

Izenburua

Egitura bihurkarien interferentzia eta transferentzia Iruñeko ikasleen jardunean

Masterra

Unibertsitate Masterra Bigarren Hezkuntzako Irakasletzan

Ikastegia

Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea

Nafarroako Unibertsitate Publikoa

Zuzendaria

Iker Salaberri Izko

Saila

Gizarte eta Hezkuntza Zientzien saila

Ikasturtea

2018/2019

Laburpena

Hurrengo orrialdeetan aurkezten den lanak Iruñeko (Nafarroa) ikasleek egitura bihurkariak nola egiten dituzten aztertzea du helburu. Hainbat lanetan aipatu den moduan, aspalditik Nafarroako hiriburuko D ereduko ikasleak hizkuntza-ukipen egoera jarraian daude. Izan ere, eskola izan ohi da euskara jasotzen eta erabiltzen den esparru bakarra. Hori dela eta, gaztelaniatik euskarara zenbait osagai eta egitura (egitura bihurkariak, besteak beste) igaro direlako ustetik abiatu gara. Horretarako, Iruñeko Txantrea auzoan kokatuta dagoen Eunate BHIko ikasleen jarduna aztertu dugu, baita beren hizkuntza-nortasuna ere. Ikerketa honek garrantzia berezia du, lan honetan eskuratu ditugun emaitzak aztertzeari begira. Izan ere, orain arte transferentzia mota hauek aztertu dituzten lanak gutxi izan dira, eta hemen kausitu ditugun emaitzek bihurkari iragangaitza gero eta ohikoagoa dela adierazten digute.

Hitz-gakoak: Egitura bihurkariak, hizkuntza-ukipena, transferentzia, euskara, gaztelania.

Resumen

El trabajo mostrado a continuación tiene por objetivo observar cómo producen los alumnos de secundaria y bachillerato las construcciones reflexivas. Tal y como se ha mencionado en trabajos anteriores, desde hace tiempo los estudiantes del modelo D de Navarra están expuestos a una constante situación de bilingüismo. Por ello, partimos de la hipótesis de que hay ciertos elementos, entre los cuales se incluyen/encuentran las estructuras reflexivas, que han sido transferidos del castellano al euskera debido a esta exposición. Para ello analizamos la capacidad lingüística de diversos alumnos del instituto IES Eunate, situado en el barrio pamplonés de la Txantrea, y también tenemos en cuenta su identidad lingüística. Esta tarea es clave a la hora de analizar los resultados obtenidos, ya que no hay muchas investigaciones que aborden este tipo de transferencias, y los resultados nos muestran que este tipo de reflexiva intransitiva es cada vez más común.

Palabras clave: Construcciones reflexivas, contacto de lenguas, préstamo/transferencia, euskera, castellano.

Abstract

The aim of the work presented below is to observe how high school and baccalaureate students produce reflexive constructions. It is well known that the students of model D of Navarre are exposed to a constant situation of bilingualism. Therefore, we assume that there are certain elements, including reflexive constructions, which have been transferred from Castilian Spanish to Basque due to the contact between these two languages. With this aim in mind, we analyse the linguistic capacity of several students of the IES Eunate institute, located in the Txantrea neighbourhood, in Pamplona, and we also take into account their linguistic identity. This task will be key when analysing the results obtained, because there is not much research addressing this type of transfer, and the results shows that this type of intransitive reflexive is increasingly common.

Keywords: Reflexive constructions, linguistic contact, borrowing/transfer, Basque, Spanish.

Aurkibidea

1. Sarrera.....	6
2. Marko teorikoa	7
2.1. Hizkuntza-ukipenaren ondorioz sortutako aldaketa	7
2.2 Egitura bihurkariak	9
2.2.1. Bihurkaritasuna definitzen	9
2.2.2. Bihurkaritasuna euskaraz	10
2.2.3. Antzeko egiturak: Boz ertaina.....	14
2.3. Euskal hiztunen identitatea	17
3. Helburuak eta metodologia.....	18
3.1. Helburuak eta hipotesia	18
3.2. Metodologia eta corpusa	19
4. Emaitzak eta eztabaida	20
4.1. DBH2ko emaitza orokorrak.....	20
4.1.1. Emaitza orokorrak	20
4.1.2 Euskaldun zaharren emaitzak.....	22
4.1.3. Euskaldun berrien emaitzak	23
4.1.4. DBH2ko emaitzen eztabaida.....	25
4.2. Batxilergoko emaitza orokorrak	27
4.2.1 Emaitza orokorrak	27
4.2.2. Euskaldun zaharrak	28
4.2.3. Euskaldun berriak.....	29
4.2.4. Batxilerreko emaitzen eztabaida	31
4.3 Ikasleen emaitzen eztabaida.....	33
5. Ondorio orokorrak	34
6. Bibliografia.....	36

1. Sarrera

Egun munduko hizkuntzak ukipen egoeran daude. Globalizazioaren ondorioz, munduko hizkuntza guztiak edo ia guztiak elebitasun edo eleaniztasun egoeran daudela esan daiteke; hau da, harremanetan daude, bai hizkuntza nagusiak, gaztelania kasu, eta bai gutxiagotuak, euskara kasu. Hartara, Palaciosen (2010) arabera, hizkuntza-ukipen egoera emankorrenak sortzen dira.

Ohiko teorietan hizkuntza-ukipena bereziki hiztegiarekin lotu da, eta mailegu lexikoa, beraz, hizkuntza batetik bestera gertatzen den transferentziazat hartu ohi da. Ostera, zenbait autorek transferentzia linguistikoak lexikotik haratago joan eta zeinahi hizkuntzaren gramatikako edozein atali eragin diezaiokeela frogatu dute. Thomason (2001) arau, edozein ezaugarri morfologiko hizkuntzatik hizkuntzara igaro daiteke: izenordain sistema, kasu-markaketa, adposizioen erabilera, komunztadura mota desberdinak, genero eta numero markaketa, hitz-hurrenkera, eta aditz-sistema, besteak beste.

Weinreich (1953, 68. or.) —bere garaian yiddisetik ingelesera igarotako egituren azterketaren bidez— eta Palacios (2010) frogatu dutenez, egitura morfologikoez gain egitura sintaktikoak ere hizkuntza batetik bestera igaro daitezke eta, hain zuzen ere, hori da azterketa honen abiapuntua.

Gure ikerketa lana Iruñeko euskararen eta gaztelaniaren arteko hizkuntza-ukipen egoeran ardaztu da. Gure ustez, Weinreich (1958), Thomason (2001) eta Palacios (2010) arrazoa dute eta, bereziki, askok edozein hiztunen ahotan ohikoa den egitura sintaktiko bat gaztelaniatik euskarara mailegatu dela uste dugu: egitura bihurkaria. Hori dela eta, gure lana Eunate BHIko ikasleek egiturek nola ekoizten dituzten aztertzeraz bideratuta dago.

Horrenbestez, lan honek hurrengo egitura du: lehenik eta behin, hizkuntza-ukipenari eta mailegaketari buruz idatzitako bibliografiaren inguruko zehaztasunak eman ditut (§2.1.). Jarraian, euskararen eta gaztelaniaren egitura bihurkariak deskribatu ditugu, hots, zein diren eta nola gauzatu behar diren (§2.2.). Hau egin ondoren, ikerlanaren marko teorikoa eta helburua finkatu ditugu, baita MALa gauzatzeko erabili dugun metodologia zehaztu ere (§III.). Helburuak eta metodologia finkatu ostean, emaitzak erakusteari eta eztabaidatzeari ekin diogu (§IV.) eta, azkenik, lanaren ondorioak aurkeztu ditugu (§V.).

2. Marko teorikoa

Esan bezala, marko teorikoak gure lanari hasiera ematen dio. Atal honetan ikerketa hau osatzeko oinarrizkoak izan diren ikerketak eta teoriak aztertu ditugu. Hauek, ondoren, baliagarriak izango zaizkigu emaitzak ulertzeko eta eztabaidatzeko orduan.

2.1. Hizkuntza-ukipenaren ondorioz sortutako aldaketa

Sarreran aipatu moduan, hizkuntza-ukipena dagoen testuinguruetan aldaketa linguistikoak ohikoak¹ dira. Etxeberriaren (1995) arabera, gertaera hauek bi hizkuntza edo gehiago elebitasun edo eleaniztasun egoeran daudenean gertatzen dira.

Aldaketa linguistikoak, izenak berak ongi azaltzen duen bezala, hizkuntza batetik bestera gertatzen diren aldaketak dira. Hainbat autore aldaketok nola eta zein egoeratan gertatzen diren azaltzeko proposamenak egiten saiatu dira (Thomason eta Kauffman 1988; Thomason 2001; Coetsem 1988; Winford 2005), baina, oro har, aldaketa linguistikoak bi gertaeren bidez azaldu dira; mailegu linguistikoaren eta interferentzia linguistikoaren bidez.

Mailegu linguistikoak hiztun batek bi hizkuntza edo gehiago neurri berean menderatzean eta mailegatzea bi hizkuntzak elkar aberasteko erabiltzen dituztenean gertatzen dira. Interferentzia linguistikoak, ordea, hiztunak bigarren hizkuntzan (2H) gabeziak edo arazoak dituztenean agertzen dira; hiztuna ez da gai 2Hn behar bezala adierazteko eta, horregatik, bere ama hizkuntzara joko du gabezia horiek osatzeko. Palaciosek (2010) dio bata edo bestea gertatu ote den identifikatu ahal izateko aldaketaren noranzkoari erreparatu behar zaiola. Mailegu linguistikoak hiztunak 2Hko osagaiak 1Hra ekartzen dituztenean gertatzen dira, eta interferentzia linguistikoak, ostera, hiztunak 1Hko osagaiak 2Hkoekin batzen dituztenean; hauek ikasketa arazo edo gabeziekin lotuak egon ohi dira.

Mailegu linguistikoak usuki inkorporazio lexikotzat hartu dira, baina esan beharra dago morfologikoak eta sintaktikoak ere izan daitezkeela, hauei buruz gutxi esan bada ere. Palaciosen (2010) arabera, mailegu mota hauek askotan hain erroturik egon daitezke hizkuntza baten egituran, ezen hiztun elebatarrek ere oharkabean egin ditzaketen. Esate baterako, euskararekin kontaktuan dauden gaztelaniaren iparraldeko aldaeretan

¹Honek ez du esan nahi hizkuntza-ukipenean ez dauden hizkuntzak aldatzen ez direnik. Hizkuntzek berezkoa dute aldatzea, eta, horren kasu argia islandieraren kasua dugu. Izan ere, danierarekin eta ingelesarekin izan duen kontaktu gutxia kenduta, mila urte baino gehiagoz aldatzen aritu da.

baldintzazko aldia *vendria* eta ez *viniese* erabiltzean edota eremu berean hizkuntzalari askok aztertu duten *leismoaren* fenomenoaren gurean ditugun bi adibide dira.

Interferentzia linguistikoari dagokionez, Weinreich (1953) hiztun komunitate elebidun edo eleaniztun guztietan gertatzen diren fenomeno sistematikotzat jo zuen. Thiemerrek (1980) bi azpimotatan sailkatzen ditu: barrukoak eta kanpokoak. Barruko interferentziek hizkuntza baten sistemaren barruko eraldaketa morfologikoak eta egiturazkoak jasotzen dituzte; esate baterako, flexio morfologikoak edota lan honetan aztergai ditugun egitura bihurkariak. Kanpokoek, ostera, egitura ezagunek beste hizkuntzekin duten eraginaren ondorioz sortutakoak hartzen dituzte. Izan ere, hiztuna hizkuntza berri bat ikasten hasten denean hizkuntza berri horren eta ama hizkuntzaren arauak eta ohiturak gatazka egoeran sartzen dira, eta hasieran ikasten ari denaren gramatika lehenengo hizkuntzaren osagaiekin betetzen da. Denborarekin, hizkuntza horretan gaitasuna eskuratzen joan ahala, hizkuntza horretako osagaiek lehenengo hizkuntzatik igarotakoak ordezkatzeko dituzte, baina zenbait kasutan hiztunarentzat bere ama hizkuntzaren formak ekonomikoagoak badira, orduan interferentziak eta maileguak gertatzen dira. Tiborrek (1998), orobat, interferentziak eraginaren noranzkoaren arabera sailkatzen ditu; alde batetik, 1Hk eta 2Hk sortutako interferentziak ditugu, eta, bestetik, 2Hk edo 3Hk sortutakoak.

Bereizketa honetan sakonduz, autore batzuek aldaketa linguistikoak bi muturretan polarizatzeko joera izan ohi dute. Alde batetik, batzuek (Thomason & Kauffman, 1988; Thomason, 2001) hizkuntza baten barneko edozein osagai transferi daitekeela defendatu dute, eta beste batzuek, ordea, lexikoa baino ezin daitekeela transferitu uste dute; hau da, lexikoaz gainerako elementu guztiak interferentzia linguistikoek motibatuta daudela. Are gehiago, zenbait autorek egitura sintaktikoak mailegatzeko aukera ukatzen dute. Windforrek (2005), besteak beste, uste du aldaketa linguistikoa psikolinguistikaren esparruko adigaia dela, eta ez soziolinguistikakoa. Honenbestez, hiztunak osagaiak ama hizkuntzatik edo gaitasun gehiago duen hizkuntzatik gutxiago menderatzen duen batera ekartzen baditu, bere ustez hor inposizioa dago, eta, aldiz, gutxiago menderatzen duen hizkuntza horretatik ama hizkuntzara igarotzen baditu, mailegua gertatu da. Hala ere, autoreak ez du transferentzia gertatzeko elebitasun mailari edo hizkuntzaren gaitasunari buruzko zehaztasunik ematen. Ondorioz, beste autoreekin bat eginez, egituren mailegatze zuzena ezaugarri estrukturalak eta tipologikoak baldintzatuta dago.

Haatik, kalko sintaktikoak edo hizkuntza batetik bestera igarotako eredu morfosintaktikoak inposizio baten ondorio dira. Beste modu batera esanda, hau hiztun batek bigarren edo hirugarren hizkuntzan hitz egiteko bere ama-hizkuntzaren eskemak erabiltzen dituenean gertatzen da.

Palacios (2010), gertaera hauen ikerkuntzan egin beharreko lanaz jabeturik, oraindik argitu gabeko kontzeptuez mintzo da.

1. Edozein hizkuntzatako edozein osagai beste hizkuntza batzuetara transferi daiteke hizkuntza-ukipen egoera bizia badago, hau da, elebitasun egoera historiko orokortu batean.
2. Hizkuntza-ukipen egoera batean ukipenaren ondorioz gertatutako aldaketak bi noranzkotan gertatzen dira. Transferentziak hizkuntzen arteko prozesu dinamikoak izan ohi dira, bai gizartean eta bai norbanakoaren baitan.
3. Aldaketak hizkuntzen arteko interakzioaren ondorio dira. Norbanakoak gizartearen partaidea den heinean komunikazioa beharrezkoa du; orobat, gizarteak gizarteekin komunikatzen dira. Beraz, elkarrekintza hauetatik aldaketa linguistikoak sortzen dira.
4. Cooken (1991) eta Grosjeanen (1998) hipotesiei jarraituz, Palaciossek onartzen du hizkuntza-ukipen egoeretan norbanako elebidunak ez direla bi elebakarren bateratzea. Bi hiztunen gaitasun linguistikoak askoz ere aberatsagoak dira, eta honen eraginez mailegutza linguistikoetarako edo interferentzia linguistikoetarako proposatutako baldintza linguistikoez haratago joan daitezke.

Honenbestez, aurreko zehaztapenak kontuan harturik, guk Cookek (1991), Grosjeanek (1998) eta Palaciossek (2010) bezala uste dugu mailegutza lexikoaz gain, mailegu sintaktikoa eta morfologikoa ere posible direla.

2.2. Egitura bihurkariak

2.2.1. Bihurkaritasuna definitzen

Egitura bihurkariak askotara definitu dituzte azken urteetako hizkuntzalariek, baina seguruenik Faltz (1985, 3-4 or.) izan da egun dugun definiziorik zehatzena eman duen hizkuntzalaria. Faltzek dioskunaren arabera, hizkuntza bateko aditz/predikatu beraren egileak eta jasaileak erreferente berbera dutela adierazteko prozedura gramatikalik baldin badu, prozedura horri *primary reflexive strategy* ‘oinarrizko estrategia bihurkaria’ deitu ohi zaio; oro har, erreferentziakide diren izen sintagma (IS) edo argumentu horietako bat

edo biak izenordain batek ordezkatzeko, eta, zenbait kasutan, ezaba daitezke edo ahoskatu gabe utzi daitezke.

Beraz, egitura bihurkariak bi argumentu edo gehiago dituzten perpausak dira, zeinetan subjektua eta osagarria erreferentziakideak diren. Ikus ditzagun ingeleseko (1) eta gaztelaniako (2) hurrengo adibideak.

(1) Josh saw himself in the mirror.

Josh ikusi.IRGN izenordain PREP. DET ispilu²

‘Josuk bere burua ispiluan ikusi zuen.’

(2) José se miró a sí mismo en el espejo.

Jose MB ikusi.3SG.IRGN. PREP 3SG.OBL. bera PREP DET ispilua

‘Josuk bere burua ispiluan ikusi zuen.’

Ohar bedi irakurlea aurreko (1) adibidean, *Josh* egile subjektua eta *himself* osagarri jasailea edo gaia erreferentziakideak direla, baita (2)ko *Jose* eta *se* izenki pronominala ere. Bietan ala bietan, *Josh* eta *Jose* bi alditan agertu beharreak, osagarria bihurkari marka batez ordezkatzeko dugu eta hau egitean sortzen den egitura horri, hain zuzen ere, egitura bihurkaria deritzogu.

2.2.2. Bihurkaritasuna euskaraz

Euskaltzaindiak (1991, 62 or.), Faltzek bihurkariaren egiteko funtsezko jo zituen rol semantikoak aipatu gabe, antzeko definizioa ematen du: perpaus baten barruan bi izen sintagma erreferentziakideak direnean, bigarren izen sintagmak izenordain bihurkariaren forma hartzen du. Euskaraz ere ez ditugu bi izen sintagmak errepikatzen; horren ordez, bigarrena agertu beharko litzatekeen lekuan izenordain indartua edo bihurkaria eta *buru* izenkia ezartzen ditugu.

Izenordain indartuak edo bihurkariak ohiko formen edo forma indartu gabeen (*nire/ene, hire, zure, bere*) parean ager daitezkeen izenordain hanpatuak izan daitezke. Euskaltzaindiaren (1991, 67 or.) arabera, hauek bereziki interesgarriak dira genitiboa hartzen dutenean, zeren orduan formaz indartuak izateaz gain, esanahiz bihurkariak dira.

2 Hauek dira lanean zehar erabili ditugun glosak:

1: 1. pertsona; 2: 2. pertsona; 3: 3. pertsona; DET: Determinatzailea; IRGN: iraganaldia; Izord: Izenordain MB: markatzaile bihurkaria; MEB: bozertaineko markatzailea; OBL: zehar-kasua; ORN: orainaldia; PL: plurala; PREP: preposizioa; SG: singularra

Bereizketa batzutan bereziki nahasia da, baina hau da biak desberdintzeko Euskaltzaindiak emandako araua:

“Erabil bedi genitibo bihurkaria baldin eta izenordain horrek aipatzen duen pertsona edo izakia perpaus berean aurkitzen bada *nor, nori* edo *nork* sintagma bezala” (Euskaltzaindia 1991:67)

Izenordain posesiboak perpaus berean dagoen subjektuari erreferentzia egiten badio (erreferentziakidea bada), orduan izenordain posesibo bihurkaria erabiltzen da. Izenordain posesiboak perpaus berean ez dagoen subjektu bati erreferentzia egiten badio, eta beraz perpaus bereko subjektuari erreferentziarik egiten ez badio, orduan izenordain posesibo indartu gabea erabiltzen da. Arau honi euskalaritzan Aresti-Linschmann legea deitu ohi zaio (Kintana, 1971; Sarasola, 1979). Beraz, aditzari begiratzea komeni da sintagma horiek ageri diren jakiteko.

(3) Nik neure etxeko lanak egin ditut eta zuk zeureak.

(3) perpausean *nik* eta *zuk* nork sintagma bezala ageri dira: *Nik etxeko lanak egin ditut* eta *zuk etxeko lanak egin dituzu*. Beraz, *nire/ene* edo *zure* izenordain ohikoak erabili beharrean, izenordain indartuak edo bihurkariak erabili behar dira.

Gauzak horrela, aurretik aipatu bezala egitura bihurkaria bigarren osagaia izenordain indartuz edo bihurkaria + *burua*-rekin ordezkatzuz osatzen da.

(4)

a. Irakasleak, klasera sartzean, bere burua aurkeztu zuen.

b. Gizon hark bere burua hil nahi zuen.

Egitura hauek osatzeko *burua* izenordain posesibo bihurkari bati eransten diogu; aurrekoa *ni* baldin bada *neure*; *hi* baldin bada, *heure*; hirugarren pertsonakoa baldin bada; *bere*; *gu* baldin bada, *geure*; *zu* baldin bada, *zeure*; *zuek* bada *zeuen*, *zeron*, etab. Hala ere, Hualdek eta Ortiz de Urbinak (2003, 620. or.) agertu moduz, hiztun batzuek izenordain indartuak lehenengo eta bigarren pertsonarekin baino ezin dira erabili.

Zenbait autore klasikok *burua* soilik ere erabili izan dute, besteak beste, Etxeparek (Euskaltzaindia, 1991, 62. or.).

(5) Ohart guiten buruyari denbora den artian (E II, 84 apud. Euskaltzaindia 1991, 62 or.)

Aurrekoa plurala bada, edo erreferentzia bat baino gehiago baldin badu, ohikoena da *burua* singularrean agertzea. Hualderen eta Ortiz de Urbinaren (2003, 159 or.) ustez, hau garai zaharretan ez zen usuki egiten.

(6)

- a. Bi gizon haiek beren burua hil nahi zuten.
- b. Guk geure burua maite dugu gehien.

Hala ere, hurrengo hiru adibideek erakusten dutenez, badira pluralaz ere baliatzen direnak.

(7)

- a. Eta badirade chikiratuak zenietaco resumagatic bere buruac chikiratu ukan dituztenac (Lç Mt. XIX., 12 *apud.* Euskaltzaindia, 1991, 12 or.)
- b. Eguiazco dolurequin gure buruac eta gure vitio guciak citiagu condemnatzen (Lç Oihoitza ecclesiastic.)
- c. Zeuon buruon etsaiak (Ax. 82)

Bestalde, Hualdek eta Ortiz de Urbinak (2003, 159-160 or.) diote egitura bihurkariak ezin daitezkeela inoiz subjektuaren kokalekuan ageri. Bai, ordea, beste edozein posiziotan eta, halaber, beste edozein kasu marka har dezakete.

(8)

- a. *Neure buruak esan dit.
- b. Nik neure buruari esan diot.

Are gehiago, Oyharçabalek (1989, 77-78 or.) dio egitura bihurkariak ere erlatibiza daitezkeela. Edozein kasutan ere, horrelako adibideak oso eztabaidagarriak dira. Izan ere, euskal literatura osoan Oyharçabalen lanean baino ez dira erlatibizatutako bihurkarien adibideak jasotzen, eta, ziur asko, hiztun askorentzat horrelakoak onartezinak izango dira.

(9)

- a. Zergatik kalte egiten diozu hain maite duzun zure buruari?
- b. Zergatik hainbeste preziatzen dugun zure burua gutiesten duzu?

De Rijkek (2008, 365 or.) dio zenbait hiztunek adjektibo ebaluagarriekin ere erabiltzen dituztela, baina horrelakoak ere eztabaidagarriak izan daitezke.

(10)

- a. Bere buru gaixoa
- b. Neure buru triste hau.

Nolanahi ere, Euskaltzaindiak (1991, 63 or.) hemen oraindik ere argitu gabe dagoen istilu bat dagoela dio, eta azterketa sakonagoa merezi lukeena. Izan ere, gaur egungo euskal hiztunen artean *ikusten naiz* eta antzeko formak gero eta ohikoagoak dira eta *neure burua ikusten dut* bezalako formak ordezkutzen ari dira (Mounole, 2011; Salaberri, 2019). Hauek, maiz, erromantzeko formekin baliokideak izan daitezke; izan ere, euskarari, gaztelaniaz gainera, frantsesak eta gaskoierak ere eragin diote, eta hauek bihurkaritasuna modu berean adierazten dute.

(11) Yo me curo a mi mismo.
 izord.1SG 1SG.MB. sendatu.ORN. PREP 1SG.OBL. bera
 “Nik nire burua sendatzen dut.”

(12) Je me soigne moi-même.
 izord.1SG 1SG.MB. sendatu.ORN 1SG.OBL-bera

Aurreko adibidean ikus daitekeenez, bi izen sintagmak erreferentziakideak direnean, bigarren izen sintagmak izenordain bihurkariaren forma hartzen du, *me*. Hurrengo adibideek (13-ab) erakusten dutenez, gaztelaniazko eta euskarazko bihurkariaren arteko alderik nabarmenena aditz balentzian igar daiteke: euskarazko egitura bihurkariak iragankorrak dira eta gaztelaniazkoak, aldiz, iragangaitzak.

(13)
 a. Nik neure burua maite dut.
 b. Yo me quiero a mí mismo.
 Izord.1SG 1SG.MB. maitatu.ORN. PREP 1SG.OBL. bera
 “Nik neure burua maite dut.”

Hualdek eta Ortiz de Urbinak (2003, 380 or.) diote euskaraz bihurkaritasuna bietara egin daitekeela, *X-ren burua* egitura ohikoena erabiliz edota ustez erromantzetik hartutakoaren bidez. Dena den, hauen erabilera ez omen da erabat askea. Egile hauek berek diotenez, zenbait aditzen kasuan (14a-b) batzuetan *X-ren buruaren* bidez eta beste batzuenan (15a-b) iragangaiztearen bidez baizik ezin daitezke bihurkari bilakatu. Hirugarrenen kasuan (16a-b), ordea, bi bideak onargarriak dira.

(14)

- a. Mikelek bere buruarengan sinesten du. (*sinesten da)
- b. Mikelek bere buruari galdetu dio. (*galdetu da)

(15)

- a. Jantziak lehortu dira. (*Jantziek beren burua lehortu dute)
- b. Leihoak zikindu dira. (*Leihoek beren burua zikindu dute.)

(16)

- a. Irakasleak klasera sartzean bere burua aurkeztu du.
- b. Irakaslea klasera sartzean aurkeztu da.

Beraz, ikusi duguna ikusi dugula, gaiak egiatan azterketa sakonagoa merezi du eta hori da, hain zuzen ere, lan honetan egingo dudana. Egitura bihurkariak, ez dira, ordea, boz ertaineko egiturekin nahasi behar. Hurrengo atalean egitura bihurkarien eta boz ertainekoen artean dagoen aldea azalerraten saiatuko gara.

2.2.3. Antzeko egiturak: Boz ertaina

Benveniste (1966) izan da, ziur asko, boz ertainaren azterketari garrantzia handiena eman dion ikertzailea, bai eta hurrengo egileengan eragin handiena izan duenetarikoa ere. Adigai honen izenak, nonbait, greziera zaharreko gramatikan du jatorria eta akabuan boz aktiboaren eta pasiboaren arteko erdibidean kokatuta nabaritzen zuten (Benveniste, 1966, 66. or.). Hainbat ikertzailek (Kemmer 1993, 1. or.; Evseeva & Salaberri, 2018, 389. or.) ohartarazi bezala, oraindik ez dago erabateko adostasunik boz ertainaren definizioa zehazteko orduan. Izan ere, Kemmerrek (1993, 1-2. or.) erakutsi bezala, bere izaera oso aldakorra eta heterogeneoa izan daiteke hizkuntzatik hizkuntzara.

(17) Greziera klasikoa

- a. loúo-mai tas cheiras.
garbitu-ORN.1SG DET eskuak

‘Nire eskuak garbitu ditut’

b. hálló-mai

salto egin-ORN.1SG

‘Salto egin dut/egiten dut’

(18) Islandiera modernoa

a. Hann klaeddi-st
Bera jantzi.IRGN-BEM

‘Bera jantzi zen’

b. bókin fann-st
Liburu aurkitu.IRGN-BEM

‘Liburua aurkitu zen.’

(19) Frantsesa

Ce papier se recycle
DET paper BEM birziklatu.3SG.ORN

‘Papera birziklatzen da.’

Le ciel se fait sombre.
DET zerua BEM itzuli.3SG.ORN itzala

‘Egunak iluntzen du.’

(20) Ingelesa

The book sells well
DET liburu saldu.ORN ongi


‘Liburua ongi saltzen da.’

The door opened
DET atea ireki.IRGN

‘Atea ireki zen.’

Benvenistek (1966, 172 or.) dioenarekin bat eginez, boz ertaina boz aktiboarekin alderatuz baino ezin daiteke definitu: aktiboak subjektuaren baitan hasten den, honetatik at garatzen den eta jasotzailean bukatzen den ekintza adierazten du (22), eta erdi bozak, berriz, subjektuaren baitan hasi eta bertan garatzen dena (23). Beraz, subjektua ekintzaren barruan kokatzen da.

(21) Boz aktiboa (Kemmer, 1993, 50 or.) (23) Boz ertaina (Kemmer, 1993, 52 or.)



Honela, boz ertaina subjektua ekintzaren kokagunea den gertaerak adierazteko erabiltzen da. Hauek normalean garbitasun aditzak (*orraztu, garbitu, apaindu*), gorputz jarrera

aldaketak (*jaiki, eseri*), mugimendu translazioanlak (*kokatu*), emozioak (*haserretu*) eta beste adierazten dituzte (Banveniste, 1966, 172 or.; Kemmer, 1993, 16 or.).

Boz ertaineko egiturak askotan egitura bihurkariekin lotu izan diren egiturak ditugu, eta biek ala biek berezko erreferentziakidetasuna dutenez (Heine, 1999, 4. or.), Evseevaren & Salaberriren (2018, 389 or.) arabera ez da harritzekoa zenbait hizkuntzak bi kategoria gramatikal hauek adierazteko forma bera izatea; hala nola aztergai dugun euskararen kasuan:

- (24) a. Mikel goizean esnatu da.
- b. Mikel ispiluan gaizki ikusi da.

(24a)-ko egitura bihurkaritzat hartzen badugu, ohartuko gara euskarak egitura bihurkariak eta boz ertainekoak egiteko prozedura berbera dituela. Izan ere, (15a)-ko boz ertaina eta (24b)-ko bihurkaria adierazteko, aurreko bi perpausetan *esnatu* eta *ikusi* aditzak iragangaiztu dira.

Era berean, gaztelaniaz egitura bihurkari baten bidez gauzatzen dena euskaraz boz ertaineko egitura baten bidez gauza daiteke.

- (25) a. Yo me peino (a mi mismo)
Izord.1SG MB.1SG orraztu.ORN. PREP 1SG.OBL. bera
'Ni orrazten naiz'.
- b. Ni orrazten naiz.

Hala ere, zenbait arrazoi daude erdi boza eta bihurkaritasuna bi kategoria desberdin direla pentsatzeko. Hasteko, Heinek (1999, 4 or.) erakutsi bezala, nahiz eta egitura bihurkaria eta boz ertaina zenbait hizkuntzatan egitura bera erabiliz adieraz daitezkeen, bakoitzak rol semantiko kopuru desberdina du. Hurrengo (26) eta (27) adibideetan ikusiko dugunez, egitura bihurkariak bi rol semantiko ditu (26a-b) eta boz ertainekoak bakarra (27a-b).

- (26) a. Todos los dias me lavo los dientes.
guztia DET egun.PL MB garbitu.1SG.ORN DET hortz.PL
'Egunero hortzak garbitzen ditut'
- b. Klasera sartu orduko neure burua aurkeztu dut.
- (27) a. El cuchillo corta bien.
DET laban moztu.3SG.ORN ongi
- b. Mikel berehala altxatu da.

(26a)-ko perpaus bihurkarian *yo* eta *me* egile eta jasaile rola duten subjektua eta osagarri zuzena ditugu, eta euskarazkoan *nik* eta *neure burua*. Aurretik esan bezala, egitura bihurkarietan subjektua eta objektua erreferentziakideak direnean, biak errepikatu beharrean, izenordain klitiko edo bestelako osagai batek objektuaren lekua hartzen du; lehengoaren kasuan, *me* izenordainak eta, bigarrean, *neure burua*-k. (27a-b)-ko adibideetan berriz, rol semantiko bana ditugu: *el cuchillo* “labana” eta Mikel.

Bestalde, aurretik ikusi dugun moduan, boz ertaina eta bihurkaritasuna egitura desberdinak erabiliz adieraz daitezke, eta ondorioz kategoria gramatikal berekoak ez direla argudia daiteke. Esate batera, errusierak bihurkariak eta boz ertaineko kategoriak formalki bereizten ditu. Bihurkaritasuna markatzeko *sebja* izenkia erabiltzen eta boz ertaina markatzeko, aldiz, *-sja* atzizkia. Are gehiago, (29) adibidean igar daitekeenez, bihurkaritasuna adierazteko erabili ohi den egitura ibil daitekeen (*sebja*) zenbait testuingurutan boz ertaina adierazteko erabiltzen den egitura (*-sja*) erabiltzea ez da zilegizkoa.

(28) Errusiera (Kemmer 1993, 27 or.)

- a. On utomil sebja
Bera lehertuta MB.
'Berak bere burua lehertu zuen' (Bihurkaria)
- b. On utomilsja
Bera lehertu.BEM
'Bera nekatu zen' (Bat-bateko ekintza)

(29) Errusiera (Kemmer 1993, 27 or.)

- a. Viktor nenavidit sebja
Victor gorroto MB
'Victor bere burua gorroto du.'
- b. *Victor nenaviditsja
Victor gorroto.BEM
~Victor gorrota da

Beraz, ikusi duguna ikusi dugula, egitura bihurkariak eta boz ertainekoak bereizteko guk boz ertaineko egiturak alde batera utzi eta ez ditugu kontuan hartuko.

2.3. Euskal hiztunen identitatea

Ortegak eta bestek (2015), euskal hiztunen identitateak identifikatzeko eta beren burua nola ikusten zuten aztertzeke asmoarekin, hizkuntzaren autopertzepzioan oinarritutako

azterketa psikosoziala egin zuten. Ikerketaren arabera, hiztunek beren burua hiru nortasun desberdinekin lotzen dute.

Lehenengo taldeak bere burua ez du *euskaldun zahartzat* hartzen. Jarrera honen bidez, hiztunak bere hizkuntzari buruz duen pertzepzioa ez da ama hizkuntza euskara dutenena bezain ona. Hau, batez ere, bi subjektu motak erakutsi zuten: alde batetik euskara helduaroan ikasi zutenek eta, bestetik, euskara txikitatik ikasi zutenek. Argi eta garbi, bigarren taldeak hizkuntzaren transmisioari garrantzia handia eman ohi dio.

Azaleratutako bigarren pertzepzioa *ni euskaldun berria naiz* da. Normalean, profil honetara egokitzen diren pertsonak helduaroan ikasitako hiztunak ala euskara murgiltze programen bidez jaso duten gazteak dira. Hauek usaian lau faktore izan ohi dituzte amankomunean (Ortega et al, 2015): (1) jabeakuntza modua, hau da, etxean edo etxetik kanpo jaso ote duten; (2) hizkuntza-gaitasuna; (3) gaztelaniaren eragina, eta (4) erabilera. *Euskaldun berriaren* nortasuna, gainera, askotan euskal hiztun ez-osotzat eta desberdintzat hartu izan da.

Hirugarrenik, azken urteetan sortu den nortasun berri bat dugu, *ni euskalduna naiz* nortasuna. Beren buruaren pertzepzio hau duten hiztunek beste taldeek baino harreman estuagoa zuten euskararekin eta beren egunerokotasunean asko erabiltzen dutela onartzen dute; hau da, ez dute beren burua *euskaldun zahartzat* hartzen, baina ezta *euskaldun berritza* ere.

Azkenik, Ortegak eta bestek definitutako hiru nortasunei euskal soziolinguistikan ohikoa den *euskaldun zahar* profila gehitu behar diegu. *Euskaldun zahar* profila euskara etxetik eta txikitatik jaso duten hiztunei esleitu zaie. Esan beharra dago hiztun hauek normalean euskalki bat jaso dutela, baina gero eta ohikoagoa bilakatzen ari dela etxetik euskara batua jaso duten euskaldun zaharren kasua.

Beraz, lau nortasun hauek definituta, hurrengo atalean marko teorikoa eta hipotesia azaltzeari ekingo diogu.

3. Helburuak eta metodologia

3.1. Helburuak eta hipotesia

Marko teorikoan azalerratu dugun bihurkariaren fenomenoaren kontuan hartuta, lan honen helburua egun Eunate BHIko ikasleek, Iruñeko gazteen euskararen adierazle, egitura bihurkariak nola erabiltzen dituzten aztertzea izango da. §2.2.2. atalean azaldu dugunez,

hizkuntza erromantzeen eraginez euskarara igarotzen ari diren egiturak gero eta ohikoagoak dira eta gure ardura euskarak duen moduan edo gaztelaniak duenean erabiltzen ote dituzten behatzea izango da.

Gure hipotesiaren arabera, beren burua euskaldun berrizat duten hiztunek, hau da, 1H gaztelania eta 2H euskara dutenek, joera handiagoa izango dute gaztelaniatik igarotako bihurkariak erabiltzeko. Izan ere, hiztun mota honek bere egunerokotasunean gaztelania euskara baino gehiago erabiltzen du, eta, ondorioz, ohikoagoa da dakizkien bi hizkuntzek elkarri eragitea eta batetik bestera osagaiak transferitzea. Beren burua euskalduntzat edo euskaldun zahartzat hartzen dutenek, aldiz, igarotako bihurkariak erabiltzeko joera murriztuagoa erakutsiko dutela uste dugu, eta, erakutsiz gero, hauen erabilera mailegu linguistiko baten eraginagatik izango dela.

3.2. Metodologia eta corpusa

Gauzatuko dugun behaketak, esan bezala, egitura bihurkariak aztertzea du helburu, eta xede hori betetzeko galdetegi bat prestatu dugu. Bertan egindako galderak Saphirren (2012, 5-8 or.) ereduari jarraituz prestatu ditugu. Honela, gure galdetegia bi atalek osatzen dute: lehenengoan ikaslearen bat-batekotasuna bilatu da eta, bigarrean, perpaus batzuk eman dizkiogu ikasleei gaztelaniatik euskarara itzultzeko.

Lehenengo atalari dagokionez, esan bezala, ikaslearen bat-batekotasuna bilatzen ari garen heinean, bihurkariak era naturalean ekoiztea bilatu dugu. Horregatik, ikasleek beren egunerokotasunean egiten dituzten gauzak adierazteko aditzak bilatu ditugu atal honetan. Gauzak horrela, atal honek hurrengo galderak ditu:

1. Klean zaude eta bat-batean euria egiten hasten du eta ez duzu euritakorik. Zer egingo zenuke?
2. Bidaia batean joan zara eta bidaiako oroitzapena argazki kamerarekin gorde nahi duzu. Zer egingo zenuke?
3. Pintura klasean zaude eta irakasleak gaur autorretratua landu behar duzuela esan du. Zer egingo duzu?
4. Zer egiten duzu goizetan, iratzargailuak jo ondotik?
5. Lehenengo klase egunean ikasle eta irakasle guztiek zer egiten dute?

Bigarren atalean, berriz, hurrengo perpausak eman dizkiegu gaztelaniatik euskarara itzultzeko:

1. Irantzu se vio muy guapa en el espejo.
2. Tienes que demostrar un poco de amor propio y quererte más a ti misma.

3. Nada más entrar en la sala me presenté ante el jurado.
4. Avicii se suicidó.
5. Siempre dejándolo todo para el último momento, parece que no me conozco a mí mismo.
6. La semana pasada un protestante se inmoló en la plaza de la ciudad para reivindicar sus derechos.
7. El diputado imputado por corrupción ha pedido perdón. Parece que quiere lavarse las manos.
8. Hace demasiado calor, así que me he tirado al agua.
9. Mi madre dice que no es bueno compararnos con los demás.
10. Al final me he hecho caso y me he ido.

Bestalde, ikasleen hizkuntza-nortasuna ere kontuan hartu dugu, eta, horretarako, beraiek beren burua nola ikusten duten azaltzeko bi galdera egin dizkiegu: alde batetik, beren gurasoak euskaldunak diren galdetu diegu, eta, bestetik, beraiek euskararekiko beren burua nola ikusten duten eta horrela zergatik ikusten duten esateko eskatu diegu. Galdera hauen emaitzak §2.3 atalean azaldutako hitzun profilekin lotu ditugu.

Azkenik, atal honekin amaitzeko, erabili dugun lagina hurrengo da: Ikerketan parte-hartuko duten ikasleak Iruñeko Txantrea auzoan kokatuta dagoen Eunate BHiko DBH2ko 18 ikasle eta batxilergoko 42 ikasle izan dira. Uste dugu bi maila horien artean adin alde handi samarra dagoela, batetik bestera aldaketarik ba ote den igarri ahal izateko.

Honela, metodologia eta corpusa zehaztu ditugunez, emaitzak aztertzeari ekingo diogu.

4. Emaitzak eta eztabaida

Atal honetan, ikasleei galdetegia pasatu eta gero agertu zaizkigun emaitzak aurkeztuko ditugu. Lehenengo DBH2ko ikasleen emaitzak aurkeztuko ditugu, eta, ondoren, batxilergoko leko ikasleenak. Hori egin eta gero, bi ikasmailen eztabaida bateratua emango dugu.

4.1. DBH2ko emaitza orokorrak

4.1.1. Emaitza orokorrak

Metodologian aipatu bezala, galdetegian agertzen ziren galderen helburua aditz forma jakin bat, edo kasuren batean bat baino gehiago, ekoiztea da. Galderen emaitzak oinarri hartuta, hurrengo taula osatu dugu:

Aditzak	Bihurkari		Iragangaitza		Ez	
	K	P	K	P	K	P
Babestu	0	%0	1	%6	17	%94
Marraztu	2	%11	1	%6	15	%83
Aurkeztu	11	%61	7	%39	0	%0

ikusi	10	%56	8	%44	0	%0
Maitatu	10	%56	1	%6	7	%39
Buruaz beste egin	17	%94	1	%6	0	%0
Ezagutu	8	%44	8	%44	2	%11
Su eman/ Lehertu	6	%33	9	%50	3	%17
Bota	2	%11	14	%78	2	%11
Konparatu	1	%6	17	%94	0	%0
Kasu egin	12	%67	3	%17	3	%17
	79	%40	70	%35	49	%25

1. Taula: DBH2ko ikasleen emaitza orokorrak

Emaitzak azaltzen hasi baino lehen, aipatu nahi genuke galdetegian bilatzen genituen aditzetatik hiru (*argazkia atera, garbitu, zuritu*) ez direla ekoitzi, eta, horregatik, emaitzen taulatik at utzi ditugula.

Emaitzei erreparatuz, *X*-ren *burua* motako egitura bihurkariak iragangaizteak baino ekoizpen handiagoa izan dute ikasleen artean, % 40 (79/148). Hala ere, bihurkariak egiteko egitura iragangaitzek ere aski kopuru esanguratsua lortu dute, % 35en (70/198) erabili baitute. Aldiz, ikasleek 49 alditan ez dute xede genuen erantzuna eman eta bestelako bideak erabili dituzte horiek egiteko, edo, batzuetan, ez dugu erantzunik jaso.

Euskararen berezko egiturei dagokienez, kopuru gehien lortu dituen aditza *bere buruaz beste egin* izan da; 17 (% 94) ekoizpen lortu ditu eta jaso dugun egitura iragangaitz bakarra “suizidatu zen” izan da. Ondoren, *kasu egin* (% 67), *aurkeztu* (% 61), *ikusi* (% 56) eta *maitatu* (% 56) izan dira gehien agertu direnak.

Transferitutako egituren artean, ostera, *bota*-k eta *konparatu*-k portzentaia handiena izan dute, bakoitzak % 78ko (14/18) eta % 94ko (17/18) emaitzak eskuratu dituzte eta. *Su eman/ lehertu* aditzekin ekoiztitako egitura iragangaitzak ere *X*-ren *buruarekin* egindakoak baino gehiago izan dira; transferitutako egiturek % 50 (9/18) lortu dute eta euskarazkoek, berriz, % 33 (6/18). Hala ere, azpimarratu nahi dugu *su eman* gailendu den % 50 horretan erabili den aditza *inmolatu* izan dela. Beraz, ondoren eztabaidan aipatuko dugun bezala, kasu hauetan transferentzia osoa gertatu da.

Beste aditzek, ostera, emaitza parekatuagoak lortu dituzte. *Ezagutu* aditzak, esate baterako, *X*-ren *burua* bidezko % 44 (8/18) eta iragangaitze bidezko beste hainbat lortu ditu, eta *marratzu* aditzak euskarazko % 11 (2/18) eta transferitutako % 6 (1/18) izan ditu.

Ondorioztatuz, DBH2ko emaitza orokorrek argi eta garbi euskarazko jatorrizko forma nagusitzen dela adierazten digute. Orain ikus dezagun, hiztunek beren burua ikusteko moduaren arabera, zein emaitza izan diren.

4.1.2 Euskaldun zaharren emaitzak

Galdetegiko erantzunei esker, galdetegi honetan parte hartu duten DBH2ko ikasleetatik seik beren burua euskaldun zahartzat hartzen dutela jakin ahal izan dugu. Zergatik galdetu diegunean, berriz, seiek erantzun berdintsuak eman dituzte: beren gurasoak euskaldunak dira, euskara etxetik jaso dute eta txikitatik dakite.

Orduan, ikasleen hizkuntza-profila kontuan hartuta, hauek dira beren burua euskaldun zahartzat hartzen duten ikasleen emaitzak

Aditzak	Bihurkari		Iragangaitza		Ez	
	K	P	K	P	K	P
Babestu	0	%0	0	%0	6	%100
atera	0	%0	0	%0	0	%0
Marraztu	0	%0	0	%0	6	%100
Garbitu	0	%0	0	%0	0	%0
Aurkeztu	4	%67	2	%33	0	%0
ikusi	4	%67	2	%33	0	%0
Maitatu	5	%83	0	%0	1	%17
Buruaz beste egin	6	%100	0	%0	0	%0
Ezagutu	3	%50	3	%50	0	%0
Su eman/ Lehertu	2	%33	3	%50	1	%17
Zuritu	0	%0	0	%0	0	%0
Bota	1	%17	3	%50	2	%33
Konparatu	0	%0	6	%100	0	%0
Kasu egin	3	%50	1	%17	2	%33
	28	%43	20	%30	18	%27

2. Taula: DBH2ko euskaldun zaharren emaitzak

Espero genuen bezala, *euskaldun zaharrek* transferitutako egitura iragangaitzak euskarazko *X-ren burua* baino gehiagotan erabiltzeko joera dute. Euskarazkoek % 43tan (28/66) ibili dituzte eta transferitutakoek, aldiz, % 30etan (20/66). Hala ere, emaitza orokorrekin bezala, datuek iradokitzen dute bien arteko aldea ez dela oso handia eta zenbaitetan egitura iragangaitzak euskarazkoak baino gehiagotan erabiltzen direla.

Ikus daitekeenez, nolabaiteko adostasuna dago *bere buruaz beste egin* eta *nire burua maitatu* egiturekin. Izan ere, euskaldun zaharren gehiengoak hauek euskarazko egiturak

erabiliaz ekoitzi dituzte: lehenengoa egiteko % 100ek (6/6) X-ren *burua* erabili du eta, bigarrenarako, %83k (5/6) erabili du eta %17k (1/6) ez du erantzun. *Aurkeztu, ikusi* eta *kasu* egin aditzek ere kopuru esanguratsua lortu dute, % 67ko (4/6), % 67ko (4/6) eta % 50eko (3/6) portzentaiekin.

Egitura iragangaitzen bidez ekoizitako aditzei dagokienez, ikasle guztiak *konparatu dira* eta ez dute *beren burua* konparatu. *Bota*-rekin ere, % 50ek (3/6) *uretara bota da* esan du, eta % 17k (1/6) baizik ez du *bere burua uretara bota du* erabili. Emaidza orokorretan gertatzen den bezala, *su eman*-ek egitura iragangaitzekin agerpen maiztasun handiagoa du, baina gogoan izan behar dugu hauetan *inmolatu* dela erabili den aditza.

Azkenik, badirudi euskaldun zaharren artean ere *ezagutuk* gatazka sortzen duela; hiru ikaslek euskarazko bihurkaria erabiliz gauzatu dute, eta beste hiruk transferitutako bihurkari iragangaitza erabiliz.

Ondorioz, espero genuen moduan, euskarazko egitura bihurkari iragankorrena da euskaldun zaharrek jarraitutako bide ohikoena. Hala ere, ukazina da transferitutako egitura iragangaitzak gero eta gehiago hedatzen ari direla, eta, emaitzetan igar daitekeenez, batzuetan euskarazko bihurkariak baino gehiago erabili dira.

4.1.3. Euskaldun berrien emaitzak

DBH2ko euskaldun berriei dagokienez, inkesta egiteko baliatu genituen 18 ikasleetatik 12k beren burua euskaldun berrizat hartzen dute. Norik bere burua horrela ikusteko arrazoiak bi izan dira nagusiki: batetik, guraso erdaldunak dituzte eta euskara eskolan jaso dute, eta, bestetik, euskara eskolan baino ez dute erabiltzen.

Honenbestez, ikaslearen identitate-mota hau kontuan hartuz, hurrengo emaitzak jaso ditugu.

Aditzak	Bihurkari		Iragangaitza		Ez	
	K	P	K	P	K	P
Babestu	0	%0	1	%8	11	%92
Marraztu	2	%17	1	%8	9	%75
Aurkeztu	7	%58	5	%42	0	%0
ikusi	6	%50	6	%50	0	%0
Maitatu	5	%42	1	%8	6	%50
Buruaz beste egin	11	%92	1	%8	0	%0

Ezagutu	5	%42	5	%42	2	%17
Su eman/ Lehertu	4	%33	6	%50	2	%17
Bota	1	%8	11	%92	0	%0
Konparatu	1	%8	11	%92	0	%0
Kasu egin	9	%75	2	%17	1	%8
	51	%39	50	%38	31	%23

3. taula: DBH2ko euskaldun berriak

Euskaldun zaharrekin espero zena bete bada ere, ikasle euskaldun berriekin bestela gertatu da. Izan ere, euskarazko egitura bihurkariak transferitutako iragangaitzak baino gehiago izan arren, bien arteko aldea ekoizpen bakarrekoa da, eta, ondorioz, gure hipotesia ez da guztiz bete.

Bere buruaz beste egin, berriro ere, *X-ren burua* egitura erabiliz gehien ekoitzi den aditza dugu; ekoizpenetatik % 92 (11/12) euskarazko egituraren bidez egin dira, eta egitura bihurkari iragangaitzen bitartez egindakoa, gaztelaniatik mailegatutako *suizidatu* aditzarekin egin da.

Maitatu eta *kasu egin* aditzen kasuan ere alde nabarmena igar dezakegu. *Kasu egin*-ek euskarazko bihurkariaren bidezko % 75 (9/12) eta transferitutako egitura iragangaitzaren bitartez egindako % 17 izan ditu; dena den, erdarazko ereduari jarraituz lortutako % 17ko (2/12) egitura horiek *kasu egin naiz* izan dira, eta horiek, dakigun moduan, euskaraz ez-gramatikalak dira. *Maitaturen* kasuan ere, % 42k (5/12) *zeure burua maitatu behar duzu* erabili du eta bakar batek *maitatu behar zara* gauzatu.

Marraztu eta *aurkeztu* aditzek, ordea, kopuru aski orekatua erakutsi dute. Lehenengo aditza bi pertsonak adierazi dute *X-ren burua* erabiliz eta bakar batek egitura iragangaitzaren bidez. Bigarren aditza, aldiz, % 58k (7/12) euskarazko egitura bihurkaria jarraituz egin dute eta % 42k (5/12) transferitutako egitura iragangaitzaren bidez.

Egitura iragangaitza nagusitu den kasuetan, berriz, euskaldun zaharrekin bezala, *bota* eta *konparatu* izan dira gehien ekoitzi diren aditzak; bietan ala bietan, % 92n egin dira transferitutako formula erabiliz eta aldi bakarrean euskarazkoa erabiliz.

Su eman aditzaren kasuan, ikasle gehienek *inmolatu* erabili dute hau adierazteko. Beraz, aurreko taldean gertatzen zen bezalaxe, *su eman* edo *lehertu* erabiltzen dutenek euskarazko bihurkari iragankorra erabili dute, eta aditz hori erabili beharrean *inmolatu* erabili dutenek erromantzeko bihurkari iragangaitza.

Ezagutu-k eta *ikus*i-k, bestalde, mota bateko eta besteko ekoizpen kopuru bera erakutsi dute. Lehengoak *X-ren burua* bidezko % 42 (5/12) eta transferitutako egitura bidezko % 42 ditu (5/12); orobat, *ikus*i-k % 50 (6/12) eta % 50 (6/12) lortu ditu.

Azkenik, aipatzekoa da DBH2ko ikasle guztien artean euskaldun berri batek *babestu* aditza erabili duela. Hala ere, ikasle horrek *babestu* aditza erabili beharrean, bere ordaina den *refugiar* ‘babestu’ mailegatu du eta *errefujiatu zen* erabili du.

Honenbestez, DBH2ko euskaldun zaharrek eta euskaldun berriek ekoitzi dituzten formak erakutsi ondoren, hauen balorazioa egiteari ekingo diogu.

4.1.4. DBH2ko emaitzen eztabaida

Emaitzen eztabaidarekin hasi baino lehen, aurretik metodologian aipatu dugun moduan, pasatu dugun galdetegiaren bidez 17 aditz aztertu nahi izan ditugu. Hala ere, galdetegiaren galdera batzuk ikasleen bat-batekotasuna bilatzeko eginak daudenez, gerta daiteke guk espero genuen aditzik ez ekoiztea, eta hala izan da; *garbitu*, *argazkia atera* eta *zuritu* aditzek ez dute lekukotasunik izan, eta, ondorioz, emaitzetatik kanpo utzi ditugu.

Gainerako aditzei dagokienez, lehenik eta behin DBH2n inkesta osatu duten ikasle guztien emaitzak erakutsi ditugu. Hauetan, aipatzekoa da gure hipotesian iradokitzen genuena: euskarazko egitura bihurkariak oraindik lehentasuna badute ere, transferitutako egitura irangangaitzak gero eta hedatuago daude; ikasmaita honetan % 40n euskarazko bihurkariak erabiliz ekoitzi dira, eta transferitutako egiturak erabiliz, berriz, % 35en. Beraz, bien arteko aldea ez da hain handia.

Ikasleen nortasunean sakontzen badugu, gure hipotesia hein handi batean betetzen dela ikusiko dugu. Euskaldun zaharrek, 18 ikasletatik % 50ak, euskarazko egitura bihurkariak transferitutakoak baino nahiago izan dituzte: % 43tan erabili dituzte euskarazkoak eta % 30etan transferitutakoak. Euskaldun berriekin ere espero genuena gertatu da. Gure hipotesiaren arabera, euskaldun berriek transferitutako egiturak euskaldun zaharrek baino maizago erabiliko zituzten, eta hala izan da; hots, aditz bakarreko aldea izan eta euskarazko bihurkariak erabili badira ere, bien artean ekoizpen bateko aldea dagoela ikusi dugu, % 39 eta % 38 izan baitira, hurrenez hurren.

Bestalde, bertan jaso ditugun aditzei erreparatuz bi joera nabaritu ditugu.

Alde batetik, *buruaz beste egin*, *aurkeztu*, *maitatu* eta *kasu egin* aditzak gauzatu dituzten ia aldi guztietan *X*-ren *burua* erabiliz egin dituzte. Antza denez, bai euskaldun berriek eta bai euskaldun zaharrek euskarazko bihurkaria lehenesten dute aditz hauek ekoizteko, eta transferitutako egiturak erabili dituztenean, egitura ez-gramatikalak (*kasu egin naiz*, kasu) edo forma osoaren maileguak izan dira (*suizidatu naiz*). Hala ere, salbuespenak ere badaude, esate baterako, *aurkeztu* eta *maitaturekin* egindako *aurkeztu naiz* edo *maitatu behar zara*.

Bestetik, *bota*, *konparatu* eta *su eman* aditzekin egitura bihurkari iragangaitza erabiltzeko joera izan da. *Bota* eta *konparatu* aditzen kasuan, menturaz mailegu semantiko batek eragin du mailegu sintaktikoa. Izan ere, *uretara bota* eta *konparatu* formek gaztelaniaz oso esanahi zehatza dute: ‘tirarse’ eta ‘compararse’, eta euskaraz ez dago halakorik. Ondorioz, ikasleek aditz horien esanahia mailegatzean ziurrenik egitura sintaktikoa ere mailegatu dute, eta, horregatik, bai euskaldun zaharrek eta bai euskaldun berriek forma iragangaitza erabili dute.

Su eman aditzaren kasuan antzera gertatu da. Nabari da maila honetan zenbait ikaslek ez dutela jakin *inmolarseren* euskal ordainik ematen. Ondorioz, jakin dutenek *su eman* / *lehertu* erabili dute eta *bere buruari su eman* / *bere burua lehertu* formak erabili dituzte; jakin ez dutenek, aldiz, *inmolatu* erdal aditza erabili dute, hau da, interferentzia sintaktikoa jasan dute. Gauza bera gertatu da *babestu* aditzaren ordez *errefujiatu* erabili duenaren kasuan. Ikasle honek ez duenez bere lexikoan *babestu* aurkitu, bere ama hizkuntzara jo du eta gaztelaniazko *refugiarse* itzuli eta *errefujiatu* erabili du.

Aurkeztu, *ikusi* eta *ezagutu* aditzekin, ostera, ez da gauza bera gertatu. Hiru aditz hauekin bai euskaldun zaharrek eta bai euskaldun berriek aski kopuru orekatuak erakutsi dituzte. Beraz, hauekin noranzkoari erreparatu diogu. Euskaldun zaharrek egin badituzte, ziurrenik beren hiztegia aberasteko hartutako mailegu linguistikoak izan dira, eta euskaldun berriek eginez gero, aldiz, interferentzia linguistikoak izan dira.

Beraz, esan duguna laburbilduz, hein handi batean gure hipotesia bete da. Hasiara batean uste genuen moduan, hizkuntza erromantzeetan aurkitzen ditugun egitura bihurkariak gero eta ohikoagoak dira, bai euskaldun berrietan eta bai euskaldun zaharretan. Hala ere, *X*-ren *burua* egitura oraindik erromantzeetatik datorkigunari gailentzen zaio.

4.2. Batxilergoko emaitza orokorrak

4.2.1 Emaitza orokorrak

Batxilerreko ikasleei dagokienez, batxilergoko lehen maila osoko 42 ikaslek parte hartu dute gure inkestan. DBH2ko emaitzekin egin dugun bezala, egin dugun galdera bakoitzeko ondoren agertzen zaizkigun aditzen ekoizpena bilatu dugu. Hau horrela izanik, hauek izan dira emaitzak.

Aditzak	Bihurkari		Iragangaitza		Ez	
	K	P	K	P	K	P
atera	2	%5	0	%0	40	%95
Marraztu	20	%48	0	%0	22	%52
Aurkeztu	31	%74	7	%17	4	%10
ikus	26	%62	16	%38	0	%0
Maitatu	28	%67	4	%10	10	%24
Buruaz beste egin	42	%100	0	%0	0	%0
Ezagutu	29	%69	6	%14	7	%17
Su eman/ Lehertu	25	%60	10	%24	7	%17
Bota	5	%12	31	%74	6	%14
Konparatu	7	%17	30	%71	5	%12
Kasu egin	32	%76	2	%5	8	%19
	247	%53	106	%23	109	%24

4. Taula: Batxilergoko lehen urteko emaitza orokorrak

Hasteko, DBH2ko emaitzekin alderatuta, galdetegi honetan ikasle gehiagok parte hartu dutenez ekoizpen kopuruak handiagoak izan dira. *X-ren* burua moduko egitura bihurkariak % 53ko (247/462) ekoizpen kopurua izan dute, transferitutako egitura bihurkari iragangaitzek % 23koa (106/462), eta % 24n (109/462) ikasleek bihurkaria ez den beste modu batez erantzun dute edo ez dute erantzun.

Batxilergoan ere, bilatu ditugun aditz guztien artean aditz batzuek ez dute ekoizpenik jaso; *babestu*, *garbitu* eta *zuritu* ez dira gauzatu, eta, horregatik, emaitzetatik kanpo utzi ditugu.

Emaitzei erreparatuz, euskararen jatorrizko formaren alde agertu diren aditzak *atera*, *marraztu*, *aurkeztu*, *ikus*, *maitatu*, *bere buruaz beste egin*, *ezagutu*, *su eman/ lehertu* eta *kasu egin* izan dira. Atera aditzak euskaraz % 5eko (2/42) portzentaia eta transferitutako % 0koa (0/42) ditu; *marraztu* % 48koa (20/42) eta % 0koa (0/42); *aurkeztu* % 74koa (31/42) eta % 17koa (7/42); *ikus* % 62koa (26/42) eta % 38koa (16/42); *maitatu* % 67koa (28/42) eta % 10ekoa (4/42); *bere buruaz beste egin*-ek % 100ekoa (42/42) eta %

0koa (0/0); *ezagutu*-k % 69koa (29/42) eta % 14koa (6/42); *su emanek / lehertuk* % 60koa (25/42) eta % 24koa (10/42), eta *kasu eginek* % 76koa (32/42) eta % 5koa (2/42).

Transferitutako egitura iragangaitzaren bidez ekoizpen handiagoa izan duten aditzak, aldiz, *bota* eta *konparatu* izan dira. *Botak X-ren burua* bidezko % 12 (5/42) eta transferitutako % 74 (31/42) ditu, eta *konparatuk*, berriz, % 17 (7/42) eta % 71 (30/42).

Honela, emaitzei erreparatuta ikus daiteke ikasleek ekoitzi dituzten ia aditz guztietan euskararen berezko forma erabiltzearen alde daudela. Izan ere, 14 aditzetatik 12rekin X-ren *burua* egitura erabili da eta, bataren eta bestearen kopuruari erreparatua, DBH2n baino alde handiagoa dago bi egituren ekoizpenen artean.

Hurrengo ataletan, ikasleen nortasunari erreparatuko diegu eta emaitzak sakonago aztertuko ditugu.

4.2.2. Euskaldun zaharrak

Inkesta osatu duten batxilerreko 42 ikasleetatik 13k beren burua euskaldun zahar definitu dute. Ikasle hauek guraso bat edo biak euskaldunak direla eta euskara etxetik jaso dutela esan dute. Gainera, batzuek erakutsi duten bitxitasuna aipatzekoa da. Izan ere, guraso erdaldunak dituzten eta euskara eskolan jaso duten zenbait hiztunek ere beren burua euskaldun zahartzat hartu dute. Hurrengoak dira talde honen emaitzak.

Aditzak	Bihurkari		Iragangaitza		Ez	
	K	P	K	P	K	P
Babestu	0	%0	0	%0	0	%0
atera	1	%8	0	%0	12	%92
Marraztu	9	%69	0	%0	4	%31
Garbitu	0	%0	0	%0	0	%0
Aurkeztu	11	%85	2	%15	0	%0
ikusi	9	%69	4	%31	0	%0
Maitatu	9	%69	2	%15	2	%15
Buruaz beste egin	13	%100	0	%0	0	%0
Ezagutu	10	%77	2	%15	1	%8
Su eman/ Lehertu	11	%85	2	%15	0	%0
Zuritu	0	%0	0	%0	0	%0
Bota	3	%23	8	%62	2	%15
Konparatu	4	%31	7	%54	2	%15
Kasu egin	10	%77	1	%8	2	%15
	90	%63	28	%20	25	%17

5. Taula: Batxilergoan leko euskaldun zaharren emaitzak

Aurreko taulan ikus daitekeenez, euskaldun zaharretatik gehienek *X-ren burua* forma lehenetsi dute bihurkariak ekoizteko orduan. Euskararen berezko bihurkariak %63ko ekoizpen kopurua izan dituzte, eta transferitutako iragangaitzek, aldiz, %20koa. Beraz, bien arteko aldea nahiko handia da.

Atera aditzari dagokionez, batxilergoko ikasle guztien artean euskaldun zahar batek baino ez du ekoitzi, aditz honi zegokion galderan *nire buruaren argazki bat atera egingo nuke* erantzun baitu. *Marrazturekin*, aldiz, % 69k (9/13) *X-ren burua* formularen oinarrituta egin dute, eta % 31k (6/13) ez du erantzun.

Aurkeztu, *ikus*, *maitatu*, *ezagutu*, *bere buruaz beste egin* eta *kasu egin* aditzekin ere euskarazko erabilera nagusitu da. *Aurkeztuk* % 85eko (11/13) ekoizpen iragankor eta % 15 (2/13) iragangaitz izan ditu; *ikusik* % 69 (9/13) eta % 31 (4/13); *maitatuk* % 69 (9/13) eta % 15 (2/13); *ezagutuk* % 77 (10/13) eta % 15 (2/13); *eta bere buruaz beste egin*ek % 100 (13/13) iragankor. Hauen guztien artean, hemen aipatu nahi genuke bi ikaslek gauzatu duten *maitaturen* erabilera iragangaitza, *gehiago maitatu behar zara*, baita *kasu egin*ekin osatutako *kasu egin* naiz ere.

Su eman / lehertu aditzarekin ere euskararen jatorrizko forma lehenetsi da, baina honetan ñabardura bat azpimarratu nahi dugu. Espero zen bezala, *X-ren burua* erabili den aldi guztietan ikasleek *bere burua erre* edo *bere buruari su eman* erabili dute, baina erabilera iragangaitzarekin gauzatu diren bi horietan *inmolatu* erdal mailegua erabili dute. Beraz, kasu hauetan, DBH2ko ikasleekin gertatzen zen modu bertsuan, egituraren transferentzia osoa izan da.

Azkenik, *bota* eta *konparatu* aditzei dagokienez, bietan ala bietan erabilera iragangaitza nagusitu da. *Bota* aditzarekin % 62an (8/13) ikasleek *uretara bota* naiz erabili dute eta % 23an (3/13) *nire burua uretara bota* dut. *Konparaturekin*, berriz, % 54k (7/13) *konparatzea* erabili dute eta % 31k (4/13) *gure burua konparatzea*.

Honenbestez, emaitzek erakusten diguten moduan, batxilergoko ikasle euskaldun zaharrek egitura bihurkariak gauzatzekoan *X-ren burua* hobesten dute. Orain ikus dezagun beren burua euskaldun berrizat hartzen dutenek nola ekoizten dituzten.

4.2.3. Euskaldun berriak

Galdetegia egin duten batxilergoko lehen urteko 42 ikasleetatik 29k beren burua euskaldun berrizat daukate. Nortasun horrekin identifikatzeko ematen dituzten arrazoiak

hurrengoak izan dira: batetik, beren gurasoak erdaldunak dira, eta, honen ondorioz, euskara eskolan ikasi dute; eta, bestetik, ikasle batzuek beren euskara maila baxua dela adierazi dute.

Beraz, ikasleen nortasuna kontuan hartuta, hauek dira batxilergoko lehen urteko beren burua euskaldun berrizat hartzen dutenek ekoitzi dituzten emaitzak:

Aditzak	Bihurkari		Iragangaitza		Ez	
	K	P	K	P	K	P
atera	1	%3	0	%0	28	%97
Marraztu	11	%38	0	%0	18	%62
Aurkeztu	20	%69	5	%17	4	%14
ikusi	17	%59	12	%41	0	%0
Maitatu	19	%66	2	%7	8	%28
Buruaz beste egin	29	%100	0	%0	0	%0
Ezagutu	19	%66	4	%14	6	%21
Su eman/ Lehertu	14	%48	8	%28	7	%24
Bota	2	%7	23	%79	4	%14
Konparatu	3	%10	23	%79	3	%10
Kasu egin	22	%76	1	%3	6	%21
	157	%50	78	%24	84	%26

6. Taula: Batxilergoa leko euskaldun berriak

Goiko taulan ikus daitekeenez, berriro ere euskaldun berri gehien-gehienek *X*-ren *burua* forma lehenetsi dute bihurkariak ekoizteko orduan. Euskararen berezko bihurkariak % 50eko (157/319) ekoizpen kopurua dute, eta transferitutako iragangaitzek, aldiz, % 24koa. Beraz, bien arteko aldea nahiko handia bada ere, ez da euskaldun zaharren emaitzetan agertutakoa bezain handia.

Identitate honen emaitzei hasiera emanez, *Marraztuk* % 38 (11/29) gauzapean izan ditu. Euskaldun zaharrekin ez bezala, batxilerreko euskaldun berri guztiek bihurkaria erabili dutenean euskararen berezko formaz baliatu dira eta *nire burua marraztu* ekoitzi dute.

Aurkeztu, *ikusi*, *maitatu*, *ezagutu*, *bere buruaz beste egin* eta *kasu egin* aditzekin, berriro ere, erabilera iragankorra nagusitu da. *Aurkeztuk* % 69 (20/29)ekoizpen iragankor eta %17 (5/29) iragangaitz kopuruak ditu; *ikusik* % 59 (17/29) eta % 41 (12/29); *maitatuk* % 66 (19/29) eta % 14 (4/29); *ezagutuk* % 66 (19 /29)eta % 14 (4/29); *bere buruaz beste eginek* % 100 (29/29) eta % 0 (0/29); eta *kasu eginek* % 76 (22/29) eta % 3 (1/29). Hauetan ere, lehen euskaldun zaharrekin bitxiak ziren *maitatu behar zara* eta *kasu egin*

naiz formak agertu dira. Beraz, bai euskaldun berriei eta bai euskaldun zaharrei eragiten dien gertaera dela ikus dezakegu.

Su eman / lehertu aditzarekin ere euskararen jatorrizko forma lehenetsi da, baina euskaldun berrien artean emaitza orekatuagoak jaso ditugu. Talde honek *X*-ren burua formularen oinarrituta aldi guztien % 48an (14/29) egin dituzte eta iragangaitzarena formularen oinarrituta % 28an (8/29). Aurreko taldean bezala, *X*-ren *burua* erabili den aldi guztietan ikasleek *bere burua erre* edo *bere buruari su eman* erabili dute, eta erabilera iragangaitzarekin gauzatu diren zortzi horietan, ostera, *inmolatu* erdal mailegua edo *lehertu* aditza.

Azkenik, batxilerreko ikasle euskaldun berriek *bota* eta *konparatu* erabiltzeko orduan transferitutako aldaera iragangaitza hobetsi dute. *Bota* aditzarekin % 79an (23/29) ikaslek *uretara bota naiz* erabili dute eta % 10ean (3/29) *nire burua uretara bota dut*. *Konparaturekin*, berriz, % 79an (23/29) *konparatzea* erabili dute eta % 10en (3/29) *gure burua konparatzea*. Hartara, berriro ere, bi aditz hauek gauzatzeko; transferitutako bihurkaria nahiago da.

Honela, batxilerreko euskaldun zaharrek eta euskaldun berriek ekoitzi dituzten formak aztertu eta gero, hauen balorazioari eta eztabaidari ekingo diogu hurrengo atalean.

4.2.4. Batxilerreko emaitzen eztabaida

Lehenik eta behin, gure azterketa hiztunen identitatea kontuan hartuz egin dugu. Guk espero genituen eta Ortegak eta bestek definitutako lau nortasun moten artean guk bi baino ez ditugu aurkitu: euskaldun zaharrarena eta euskaldun berriarena. Hala ere, azpimarratzekoa da hiztunen identitatearekin ediren duguna. Izan ere, batxilergoko ikasleen artean batzuek euskara eskolan ikasita eta guraso erdaldunak izanda ere, beren burua euskaldun zahartzat hartzen dute. Ortega eta besteren ikerketa gogora ekarriz, ikertzaileen azterketan euskara eskolan txikitan ikasi zuten zenbait hiztunek ez zuten beren burua euskaldun berria izatearekin identifikatzen eta, aldiz, euskaldun ikusten zuten. Guk aztertu ditugun ikasleengan antzeko joera ikusi dugu, baina Eunateko ikasleek beren burua Ortegak eta bestek aurkitutako euskaldun gisa hartu beharrean, euskaldun zahartzat hartzen dute.

Eztabaidarekin hasteko, DBH2ko ikasleekin gertatu den bezala, hainbat aditz gauzatu gabe geratu dira. Aditz horiek *garbitu*, *zuritu* eta *babestu* izan dira.

Gainerako aditzei dagokienez, batxilergoko lehen urteko inkesta egin duten ikasle guztien emaitzak erakutsi ditugu. DBH2ko emaitzetan bi bihurkari moten arteko aldea handia bada ere, batxilergoko emaitzen aldea askoz handiagoa da; ikasmaila honetan euskarazko bihurkariak aldi guztien %53an erabili dira, eta transferitutako egiturak % 23an.

Ikasleen nortasunean sakontzen badugu, gure hipotesia bete dela ikusiko dugu. Euskaldun zaharrek, 42 ikasletatik 13k, euskarazko egitura bihurkariak transferitutakoak baino nahiago dituzte: % 63k erabili dituzte euskarazkoak eta % 20k transferitutakoak. Euskaldun berriei dagokienez, Gure inkestan 29 euskaldun berrik parte hartu dute eta egin dituzten ekoizpenetatik % 49 euskarazko bihurkariaren bidez gauzatu dira eta % 24 iragangaitzaren bidez. Gauzak honela, berriro ere, gure hipotesia bete da. Alabaina, batxilerreko ikasleek euskarazko bihurkariak iragangaitzak baino askoz gehiago erabiltzen badituzte ere, transferitutako egitura hauek jaso diren 106 aldietatik 78 euskaldun berriek egin dituzte. Beraz, uste genuen bezala, euskaldun berriek euskaldun zaharrek baino gehiago jotzen dute erromantzezko egitura hauetara.

Gauzapenean sakonduz, *buruaz beste egin*, *aurkeztu*, *maitatu*, *ikusi*, *ezagutu* eta *kasu egin* aditzak gauzatu dituzten ia aldi guztietan *X*-ren *burua* erabiliz egin dituzte. Antza denez, euskaldun berriek hala nola euskaldun zaharrek euskarazko bihurkaria lehenesten dute aditz hauek ekoizteko. Hala ere, badaude ere egitura iragangaitzarekin gauzatu dituztenak: izan ere, maila honetan ere *maitatu behar zara*, *aurkeztu naiz* eta *ikusi naiz* bezalako formak jaso ditugu.

Bestetik, beste behin ere euskaldun berriek *bota*, *konparatu* eta *su eman* aditzekin egitura bihurkari iragangaitza erabiltzeko joera izan dute. Lehendabizi, DBH2ko eztabaidan aipatu bezala, *bota* eta *konparatu* aditzen kasuan erabilera iragangaitza mailegu semantiko baten ondorioa bide da. Hauetan, beren lexikoa aberasteko baliatzen duten transferentzia denez, mailegu linguistiko baten aurrean gaude.

Su eman aditzaren kasuan, berriz, interferentzia linguistiko baten aurrean gaude. Maila honetan, ikasleen gehiengoak *su eman* edo *bere burua lehertu* aditza erabiltzen du, eta, ondorioz, euskarazko erabilerarekin agertu diren guztiak horrelaxe egin dira. Erabilera iragangaitza izan duen gutxiengoak, berriz, ez ditu aurretik aipatutako aditz horiek erabili, baizik eta *inmolarse*, edo, kasu bakan batean, *lehertu*. Honenbestez, argi dago kasu horietan gaztelaniara jo dutela euskaraz zuten gabezia bat betetzeko, eta hori interferentzia linguistikoa dela aipatu dugu marko teorikoan.

Honela, batxilerreko lehen urteko ikasleen emaitzekin amaitu eta gero, ikasle guztien emaitzen eztabaida egiteari ekingo diogu.

4.3 Ikasleen emaitzen eztabaida.

Atal honetan, aurreratu bezala, DBH2ko eta Batxilergoko ikasleen emaitzak alderatuko eta eztabaidatuko ditugu.

Hasteko, nortasunei begira, argi dago hizkuntza-nortasuna adinarekin eskuratzen joaten dela. Ikasleei beren identitateari buruz galdetu diegunean, DBH2n euskararen jabekuntza moduaren arabera erantzun dute; guraso euskaldunak baldin badituzte eta euskara etxetik jaso badute, beren burua euskaldun zahartzat hartu dute, eta guraso erdaldunak izanez eta euskara eskolan jasoz gero, beren burua euskaldun berritzat hartu dute. Hau ez da batxilergoko ikasleengan guztiz betetzen. Izan ere, batxilergoko euskaldun zaharren emaitzetan azaldu moduz, ikasle batzuek guraso erdaldunak izan eta euskara eskolan ikasi badute ere, beren burua euskaldun zahartzat ikusten dute, euskara txikitatik dakitelako eta txikitatik erabili dutelako.

Bestalde, metodologiaren atalean azaldu bezala, gure galdetegia bi zatitan banatua zegoen: lehenengo zatian ikasleen bat-batekotasuna bilatu dugu eta bigarren zatian gaztelaniatik euskarara itzultzeko esaldi batzuk prestatu ditugu. Beraz, lehenengo zatiak ikasleek espero genuena ez erantzutearen arriskua zeukan, eta gure azterketan, hain zuzen ere, hori gertatu da. DBH2ko ikasleek *argazkia*, *atera*, *garbitu* eta *zuritu* aditzak ez dituzte erabili edo, behintzat, espero ez genuen moduan erabili dituzte; batxilergoko ikasleen kasuan, aldiz, *garbitu*, *babestu* eta *zuritu* izan dira.

Emaitzen kopuruei erreparatuz, aztertu ditugun kurtso bietan euskararen jatorrizko bihurkariak transferitutakoak baino askoz ere kopuru handiagoa erakutsi du. DBH2ko ikasleek X-ren *burua* bidez 79/198 (% 40) ekoizpen egin dituzte eta bihurkari iragangaitza erabiliz, berriz, 70/198 (% 35). Batxilerreko ikasleek, aldiz, X-ren *burua* 247/462 aldiz (% 53) erabili dute eta bihurkari iragangaitza 106/462tan (% 23). Beraz, argi eta garbi egitura iragankorrak gehiago erabiltzen dira.

Erabilitako aditzei dagokionez eta aurreko eztabaidetan esandakoa laburbilduz, *Aurkeztu*, *ikusi*, *maitatu*, *bere buruaz beste egin* eta *kasu egin* aditzekin bai DBH2n eta bai batxilergoko lehen urtean euskarazko erabilera nagusitu da. Horrelakorik ez da izan

Ezaguturen kasuan, DBH2n bihurkari iragankorrek eta iragangaitzek emaitza bera lortu baitute.

Su eman edo *leherturen* kasuan, berriz, DBH2n erabilera iragankorra eta batxilergoan X-ren *buru* erabilera nagusitu dira. Honetan, bien eztabaidan zehaztu dugunez, gure ustez erabilera iragangaitza erabili den gehienetan interferentzia linguistiko bati zor zaio. Izan ere, hauetan ikasleek *su eman*, *erre* edo *lehertu* erabili beharrean, gaztelaniatik datorren *inmolarse* euskaratu dute, *inmolatu* erabiliz. Honela, beren lexikoan dagoen gabezia bat saihesteko beren lehenengo hizkuntzara jo dutenez, interferentzia linguistiko baten aurrean gaudela esango dugu.

Botarekin eta *konparaturekin*, berriz, mailegu linguistiko baten aurrean egon gitezke. Alabaina, DBHko eta batxilerreko ikasle euskaldun zaharrek zein euskaldun berriek erabilera iragangaitza lehenetsi dute. Bi taldeen eztabaidan zehaztu dugunez, itzultzeko ezarri ditugun bi adibide horiek ez dute euskaraz oso ordain garbirik, eta, ondorioz, ikasleek beren lexikoa aberasteko asmotan edo, erdarako mailegu semantikoa egitean egitura sintaktikoa ere mailegatu dute.

Beraz, ikusi duguna ikusi dugula, lan honetan gure buruari ezarri diogun helburua eta hipotesia bete ditugu. Ikasleek egitura bihurkariak nola egiten dituzten aztertu dugu, eta, gainera, espero genuen bezala, transferitutako egitura bihurkari iragangaitzak bai DBH2n eta bai batxilergoko lehen urtean nabarmen erabiltzen direla jakin dugu.

Aurreko atal guztiei berriz helduaz, hurrengo atalean ondorio orokor batzuetara helduko gara.

5. Ondorio orokorrak

Lan honetan egindako azterketak egungo Iruñeko ikasleen nortasunari eta hizkuntza-gaitasunei buruz datu interesgarriak ekarri dizkigu.

Hasteko, Ortegak eta bestek (2015) beren ikerketan zehaztutako lau gaitasunetatik (*ni ez naiz euskaldun zaharra*, *euskaldun berria*, *euskalduna* eta *euskaldun zaharra*) aztergai izan ditugun ikasleek beren burua bi nortasunekin baino ez dute identifikatu: gaur egun arte ohikoa izan den *euskaldun zahar* eta *euskaldun berri* nortasunekin. Hala ere, batxilergoko lehen urteko zenbait ikaslerengan gertaera bitxia izan da. Izan ere, ikasle batzuek guraso erdaldunak izan eta eskola euskara eskolatik jaso arren, beren burua euskaldun zahartzat hartzen dute. Hori dudarik gabe Ortegak eta bestek definitutako

euskaldunaren kontzeptuarekin lotuta dago eta, argi eta garbi, azterketa sakonagoa merezi duen gaia da.

Bigarrenik, ahalik eta erantzun espontanoenak bilatu ditugun heinean, zerrendatuta geneuzkan hainbat aditz gauzatu gabe geratu dira. Hori gertatu da *babestu* (Batxilergoko lehen urteko ikasleen kasuan), *argazkia atera* (DBH2ko ikasleen kasuan), *garbitu* eta *zuritu* aditzekin. Inkesta aurrera eramanez ondoren, konturatu gara bertan plazaratutako egoeretako batzuk ez direla eman geniezazkien errazena izan. Hori dela eta, etorkizunera begira egoera errazagoak izan daitezkeen eta ikasleen beharretara molda daitezkeen saiaturako gara.

Honekin batera, galdetegian jaso ditugun emaitzek espero genuena baieztatu dute. Hizkuntza erromantzeetatik hartutako egitura bihurkari iragangaitzak gero eta ohikoagoak dira. DBH2ko ikasleen “X-ren *burua*” formularen eta iragangaitzearen arteko aldea ekoizpen bakarrekoa da, eta batxilergoko ikasleen artean aldea nahiko handia bada ere, transferitutako egiturek aski kopuru handia lortu dute. Are gehiago, espero genuen bezala beren burua euskaldun berritzat ikusten dutenek erromantzeen bidea euskaldun zaharrek baino gehiago erabili dute: DH2ko euskaldun berriek % 38, 50/132, egin dituzte (euskaldun zaharrek % 30; 20/66) eta batxilergoko euskaldun berriek % 24, 78/319, (euskaldun zaharrek % 20; 28/133). Beraz, egitura hauek bai euskaldun berrietan eta bai euskaldun zaharretan gero eta hedatuago daudela esan daiteke.

Azkenik, egitura iragangaitzen erabilera mailegu linguistikoek eta interferentzia linguistikoek eragin dute. Emaitzen atalean aipatu dugun bezala, *konparatu* eta *bota* aditzen kasuan mailegu linguistikoek eragin dituzte, gaztelaniazko egitura jakin baten mailegu semantikoa baitira eta ikasleek beren lexikoa aberasteko egin baitute. Gainerakoak interferentzia linguistikoek eragin dituztela argudiatu dugu. *Su eman / erre* aditzarekin, esate batera, egitura iragangaitza erabili den gehienetan *inmolatu* erdal aditza erabili da, eta *bere buruaz beste egin*ekin ikasle batek *suzidatu zen* erabili du. Hortaz, aditz hauen kasuan ikasleek beren barne-lexikoan zuten gabetia bat betetzeko gaztelaniara jo dutela nabari da.

Gainerako aditzekin, ordea, zaila da esatea maileguak ala interferentziak ote diren. Argi dago *kasu egin naiz* eta *maitatu behar zara* gaztelaniazko *me he hecho caso* eta *te tienes que querer más* egituren ordainak direla, eta horrelakoek bai euskaldun zaharrek eta bai euskaldun berriek egin dituzte.

Hala ere, hemen ere kontuan hartu behar dugu ikasle euskaldun zaharren guraso askok euskara heldu aroan ikasi dutela eta euskara batua bakarrik. Beraz, litekeena da ikasleek egitura horiek beren gurasoengandik ere izatea eta belaunaldi batetik bestera igaro izana. Beraz, ikus daitekeen moduan, gai honek oraindik ikertu beharreko alderdi asko ditu eta etorkizunera begira espero dugu lan hau horietan sakontzeko euskarri lagungarria izatea.

6. Bibliografia

- Cook, V. (1991). *Second Language Learning and Language Teaching*. London: Edward Arnold.
- Euskaltzaindia (1991) *Euskal gramatika lehen urratsak-I*. Bilbao/Bilbo: Euskaltzaindia.
- Euskaltzaindia (1993). *EGLU: Euskal Gramatika Laburra: Perpaus Bakuna*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Evseeva, N., & Salaberri, I. (2018). Grammaticalization of nouns meaning “head” into reflexive markers: A cross-linguistic study. *Linguistic Typology* 22, 385–435.
- Grosjean, F. (1998). Transfer and language mode. *Bilingualism: Language and Cognition*, 1(3). 175-176.
- Hualde, Jose I. eta Ortiz de Urbina, J. (2003) *A grammar of Basque*. Berlin & New York: Mouton de Gruyter.
- Ibarra, O. (2012). Rasgos del habla actual en jóvenes bilingües. En B. Camus Bergareche y S. Gómez Sibane (eds.). *El castellano del País Vasco. ASJU* 70. 45-63.
- Kintana, X. (1971). Posesiboak Idazle Zaharretan. *FLV* 3(7), 75–80.
- Mounole, C. (2011). *Le verbe basque ancien: étude philologique et diachronique*. Universidad del País Vasco - Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Ortega, A., Urla, J., Amorrortu, E., Goirigolzarri, J. y Uranga, B. (2015). “Linguistic identity among new speakers of Basque”. *International Journal of the Sociology of language* 231. 85–105.
- Palacios, A. (2010). “Algunas reflexiones en torno a la Lingüística del Contacto. ¿Existe el préstamo estructural?”. *Revista Internacional de Lingüística Iberoamericana* 8(2). 33-55.
- Rijk, Rudolf P. G. de (2008) *Standard Basque: A progressive grammar*. Cambridge & London: Massachusetts Institute of Technology Press.
- Salaberri, I. (2019). Grammaticalization of reflexivity in Basque: a corpus-based diachronic and typological analysis. *Journal of Historical Linguistics* 9(2), Orrialdeak zehazteke.
- Sarasola, I. (1979). “Nire-Neure”, “zure-zeure” literatur tradizioan. *Euskara* 25(2), 431–446.
- Safir, K. (2012). Anaphora in the African languages: Questionnaire for language consultants. <http://www.africananaphora.rutgers.edu/images/stories/downloads/general/aq2.3.pdf> (2019ko maiatzaren 27an sartuta). New Brunswick, NJ: Rutgers.

- Thiemer, E. (1980). La interferencia interna-fuente de error en el aprendizaje del idioma. En M. Horányi (ed.). *Actas del Congreso Internacional de la Asociación Europea de Profesores de Español* (299-312. or.), Budapest: Akadémiai,
- Thomason, S. G. (2001). *Language Contact*. Washington D.C.: Georgetown University press.
- Thomason, S. G. & Kaufman, T. (1988). *Language Contact, Creolization, and Genetic Linguistics*. Berkley: University of California Press.
- Tibor, B. (1998). La enseñanza del español en Hungría: problemas de interferencia lingüística. En: F. Moreno, M. Gil, & K. Alonso (Eds.). *La enseñanza del español como lengua extranjera: del pasado al futuro. Actas del VIII Congreso Internacional de Asele* (159-165. or). Alcalá de Henares: Servicio de Publicaciones de la Universidad de Alcalá de Henares.
- Weinreich, U (1953) *Languages in contact: Findings and problems*. The Hague/Paris/New York: Mouton de Gruyter.
- Winford, D. (2005). "Contact-Induced changes: classification and processes" *Diachronica* 22, 373-427.